


Julene Azpeitia
Lehiaketa 2006



JULENE AZPEITIA LEHIAKETA



2006. URTEA

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea: _____



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*

Izenburua: Julene Azpeitia Ipuin Lehiaketa. 2006. urtea
Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga
Argitaratzailea: Durangoko Udala
Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati
Inprimategia: Gertu. Oñati
Lege Gordailua: SS-1346/06
2006ko azaroa

aurkibidea

HITZAURREA	7
Mari Jose Balier Orobio-Urrutia <i>Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko presidentea</i>	
 IPUINAK	
EGUZKIAREN LEHEN IZPIAK	11
<i>Marina Estankona</i>	
GALDUTA	17
<i>Iker Villanueva</i>	
NI PIRATA?	23
<i>Klara Zabala Antxia</i>	
BASAMORTUKO HAIZEA	31
<i>Ainhoa Ardanza Cuevas</i>	
AGUR	39
<i>Mikel Carracedo Lizundia</i>	
KOADRO BATEN ISTORIOA	45
<i>Leticia Hernandez Sanchez-Carnerero</i>	
ZOROAREN SEKRETUA	55
<i>Markel Sanchez Zelaia</i>	
HEGO-HAIZE	65
<i>Itxaso del Olmo</i>	

hitzaurrea

Une batez, denboran atzera egin eta ume garaia etorri zait burura, eskola sasoi eta orduko bizipenak. Idatzi egiten genuen, diktaketak eta idazlanak eskuz, edo arkatzez batzuetan, gero akatsak errazago zuzendu ahal izateko. Ez dut gogoan lehiaketa edo antzekorik egiten zenik, eta uste dut honako ekimenak ume eta gazteentzako motibagarriak izateaz gain, elkar ezagutzeko ere egokiak direla. Gazteen emozioak eta pentsaera antzeman daitezke euren ipuinen eta bertsoen bitartez, idazteko eta adierazteko eragatik. Mundu oso bat zabaltzen digute, eurena, eraikitzen dihardutena. Eta zergatik ez, etorkizuneko idazleak azaleratzeko ere egokiak izan daitezke lehiaketak.

80ko hamarkadaren azkenetan hasi zen Durangoko Udala Julene Azpeitia Lehiaketa antolatzen. Orduko idazlan batzuk eskuartean hartu eta irakurtzea besterik ez dago, urte gutxitan izan dugun aurrerapen ikaragarriaz ohartzeko. Formak, adierazpideak eta gaiak aldatu dira, gizartea bera aldatu delako. Bakarren bat ordenagailuz idatzita topatu dezakegu, baina gehienak eskuz daude. Gaur egungo teknologia berriei esker, gutxi dira eskuz idatzirik jasotzen ditugun idazlanak; gehienak ordenagailuz landuak izaten dira, txukun eta, sarritan, marrazki eta guzti. Batzuek, gainera, zuzentzaile ortografikoa erabiltzen dute akatsak saihestearren eta, akaso, asmo zintzo batekin: epaimahaikoei beharleku gutxiago emateko ipuinak irakurtzeko orduan. Ez da nire asmoa, inondik inora, eskuz idatzitakoa gutxiestea; izan ere, gaur egungo gizarte teknologikoan, eskuz idazteko ohitura galtzen doan honetan, meritua handiagoa duelakoan nago. Eskola-ume eta gazteei buruz ari naiz, jakina; teknologia berriekin gero eta trebeagoak direla argi dago. Adibide bat baino ez da, baina, urterik urte, gora doa posta elektronikoz jasotzen ditugun idazlanen kopurua.

Edozelan ere, aurrerapenak aurrerapen, formak, adierazteko erak eta gaiak aldatuz joango dira, baina helburuak berdintsuak izan daitezen saiatuko gara: ume eta gazteen artean idazteko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea.

Durangon, 2006ko azaroan

*Mari Jose Balier Orobio-Urrutia
Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko Presidentea*

julene azpeitia
ipuin lehiaketa
2 0 0 6



Marina Estankona

Irabazlea 11-12 urteko sailean
Landako Ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2006 urtea



Eguzkiaren lehen izpiak



Eguzkiaren lehen izpiak

Kaixo, Mukama dut izena eta Tanzanian bizi nintzen orain hilabete arte, baina orain Ingalaterrako iparraldean bizi naiz.

Orain gurasoek artile-denda bat dute.

Beno, ni beltza naiz eta trentzak ditut ilean. Begi txikiak eta marroiak ditut. Soineko bakero batekin janzten naiz, baita deportibekin, baina eskolara joateko uniforme urdina daramat. Egia esan, ez zait batere gustatzen.

Ez naiz oso pozik bizi, baina konformatu egiten naiz orain janaria, etxe on bat eta gurasoek lana dutelako.

Gaur, duela aste batzuk pasatutako istorio bat kontatu dizuet. Hona heldu nintzenean, beti zegoen euria edo lainoturik, baina inoiz ez zen eguzkia ateratzen eta nik pentsatzen nuen: “ezinezkoa da eguzki gabe bizitzea, ni eguzkiaren azpian jaio eta hasi naiz. Nik eguzkia behar dut!” Hala ere, ez zen eguzkia ateratzen eta eskolatik bueltatzean, amari galdetu nion:

- Hemen ez al dago eguzkirik?

- Bai, baina esan didatenez, orain dela asko ez da irteten.

Gero etxera joan nintzen eta hamabiak arte telebista ikusten gelditu nintzen ostirala zelako. Lo egitera joan nintzenean amets arraro bat izan nuen. Ile urdineko neska zuri-zuri bat agertu zitzaidan eta hau esan zidan:

- Mukama, Mukama, eguzkiaren kutxa zabaltzeko giltza aurkitu behar duzu.

Gero autobus geltoki baten irudia agertu zitzaidan eta erloju batean seiak ziren.

Hurrengo goizean pentsatu nuen arratsaldeko seietan etxe ondoko autobus geltokira joatea, eta hori egin nuen. Hara heldu nintzenean, hamabost minutu itxaron nituen eta ez zenez ezer pasatu, etxera joan nintzen. Etxerako bidean ez nekien zer egin, baina bat-batean gogoratu nuen nire etxeaz bestaldera bazegoela autobus geltoki bat eguzki baten graffitiarekin. Momentu horretan ezin nintzen autobus geltoki horretara joan, horregatik, etxera joan nintzen.

Igandea zen eta arratsaldeko seietan autobus geltoki horretara joan eta, graffitiaren ondoan ate antzeko bat zabaldu zen. Ni barruan sartu nintzen eta han zegoen nire ametsetan agertu zen neska hura.

Neskarengana hurbildu nintzen astiro-astiro beldurra gorputzean nuela, bera ere niregana hurbildu zen eta hau esan zidan:

- Mukama, zuk eguzkia nahi duzu?

- Bai -esan nion birritan pentsatu gabe.

- Ba, hau da egin behar duzuna: nik ate bat zabalduko dizut, han erreka bat dago, eta errekan ondoan txalupa bat, hartu. Gero txalupara igo eta errekan behera jaitsi. Baina, ia erreka amaieran ur jausi bat dago eta ur jausia baino lehenago dagoen harri handian giltza dago. Hartu giltza eguzkiaren kutxa zabaltzeko.

- Bale, oraintxe noa.

Neskak atea zabaldu eta ni barrura sartu nintzen. Neskak esan bezala, txalupan sartu eta errekan behera joan nintzen. Gero giltza hartu nuen eta ur jausitik jausi baino lehen, txalupatik salto egin nuen. Bat-batean, nire atzean zegoen zuhaixka batetik zerbait mugitzen hasi zen. Ez nekien zer zen eta zuhaixkan begiratu nuen. Orein zauritu bat zen, orein txikia, adarrik gabekoa, eta hanka apurtuta zeukan. Orduan, sendatzen saiatu nintzen, eta azkenean, kostata, hanka sendatu nion. Bat-



batean, oreinari adarrak irten, hankak luzatu eta handiagoa egin zen. Bere gainera igotzeko keinua egin zidan. Eta igo nintzen. Gero korrika hasi zen eta zelai handi batean gelditu ginen. Zelai horretan kutxa bat zegoen Giltzarekin kutxa zabaldu nuen eta eguzkia irten zen, eguzkia-
rekin batera, ile urdineko neska.

- Lortu duzu! - esan zidan.

- Orain dela urte asko pertsona gaizto batzuek eguzkia kutxa hone-
tan giltzapetu zuten, baina zuk askatu egin duzu. Nik orain etxera buel-
tatuko zaitut.

- Itxaron!

Baina hori esan nuenerako banengoen etxean. Korrika batean etxe-
tik irten nintzen eta han zegoen eguzkia bere lehen izpiak botatzen.

Orain ia egunero ikusten dut eguzkia eta askoz pozago bizi naiz. Hori
bai, euri pixka bat ez dago txarto.





Iker Villanueva

Akzesita 11-12 urteko sailean
Landako Ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2006 urtea



Galduta



Galduta

Inoiz ez dut ahaztuko lagunekin egindako txango hura.

Goizeko zortziak ziren eta euri zaparrada jauzten ari zen. Autobusa eskolara heldu zenean, berehala igo ginen. Handik ordu erdira mendira heldu eta denok, pozaren pozez, korrika jaitsi ginen. Motxilak autobusean utzi eta mendira joan ginen. Kilometro bateko ibilalditxoa egin ondoren, Aingeru, nire lagunik hoberena eta ni paisaia ikustera gelditu ginen. Zoragarria zen, Euskal Herrian geundela nabaritzen zen, dena berde-berdea, mendirik altuenetatik erreka oso txikiak bajatzen ziren, amildegi ugari zeuden eta mendi batzuen tontorretan ermitak edo gurutzeak zeuden. Konturatu ginenerako galduta geunden! Korri egiten hasi ginen bidegurutze batera heldu arte. Bertan, banandu egin ginen eta bakoitza bide batetik joan zen. Nik eskumakoa hartu nuen. Bide oso estua zen eta bi aldeetatik pinuz inguratuta zegoen. Batzuetan iturriak agertzen ziren, baina ondoan ur hori ez zela edangarria esaten zuen kartela zegoen. Bideak beldur ikaragarria eman zidan, horregatik korrika hasi nintzen, baina zoritxarrez ez nituen lagunak topatu. Orduan, bueltatzea erabaki nuen, hau da, bidegurutzeraino itzuli, eta oraingoan ezkerrekoa hartu nuen. Eskumakoa baino askoz estuagoa zen eta inguruetan pinuak ezik, mendiak ere bazeuden. Horietako mendi batzuetatik erreka txikiak jaisten ziren. Batzuetan landareak eta zuhaitzak agertzen ziren harri artean, baina oso gutxitan. Bide honek haizpiarte zirudien, baina nahiz eta korrika hasi, ez nituen nire lagunak topatu eta une horretan negarrez hasi nintzen.





Bat-batean zuhaitzetako hostoak mugitzen hasi ziren eta bertatik pertsona arraro bat atera zen. Beltz-beltza zen, iletsua eta bizar zuriduna. Begi marroiak zituen eta nahiz eta oso handiak izan, ilea eta bizarrak aurpegia guztiz estaltzen zion, belarriak eta sudurra oso handiak zituen eta bakarrik gerripekoea zeraman. Eztarriaren inguruan lepokoa zeraman eta lantza zuen eskuan. Pertsona misteriotsu hark hauxe galdetu zidan:

- Zergatik zabilta hemendik ordu hauetan?

Ni gero eta urduriago nengoen, eta ez zitzaidan hitzik ateratzen, baina hala ere, erantzutea lortu nuen:

- Galdu egin naiz, ezagutzen al dituzu mendi hauek? - galdetu nion.

- Bai, ni hemengo kobazulo batean bizi naiz eta - erantzun zidan.

- Mesedez, esango al didazu non dagoen herririk hurbilena? - esan nion.

- Sentitzen dut, baina nik ez ditut herriak ezagutzen, bakarrik mendiak ezagutzen ditut. Baina beharbada, ibai horrek herriren bat zeharkatuko du.

Pertsonai misteriotsuak ibaia non zegoen esan eta berehala alde egin zuen. Bere esana egin ondoren, ibaia topatu eta ibilbidea jarraitu nuen amildegi batera heldu arte. Zoritxarrez ilundu egin zuen eta ikaratuta nengoen. Bihotzak salto egin zidala zirudien.

Bat-batean landareen atzetik zerbait azaldu zen, saga zen. Eta atzetik zerbait zetorren, katua, alegia. Baina bat-batean, otsoaren ulua entzun nuen eta gehiago ikaratu nintzen. Korrika hasi nintzen, baina ulua gero eta hurbilago entzuten nuen. Baina zarata zuhaitz batetik zetorrela ohartu nintzen. Animalia zuhaitzetik atera zen, eta hontza besterik ez zen. Hau gertatu eta gero negarrez hasi nintzen, eta hain nekatuta nengoenez, lurrean etzan eta lo geratu nintzen. Esnatu nintzenean nire lagunekin autobusean nengoen, eta ez nekienez zer gertatu zen, nire lagunei galdetu nien:

- Baina... non nago? Ez nengoen mendian galduta?

Julene Azpeitia lehiaketa • 2006 urtea

- Zer diozu? Oraindik ez gara ailegatu ere egin.

Nire lagunaren erantzunak entzun eta gero, amets gaiztoa besterik ez zela izan ohartu nintzen.

Txangoan oso ondo pasatu nuen arren, amets gaiztoa ez nuen ahaztu.

Harrez gero, autobus bidaietan ez naiz berriz lokartu.





Klara Zabala Antxia

Akzesita 11-12 urteko sailean
Landako Ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2006 urtea



Ni pirata?



Ni pirata?

Majai deitzen naiz eta 12 urte ditut. Sizilian bizi naiz. 8 urte nitue-
nean Afrikatik Siziliara etorri nintzen egurrezko barku polit baten.
Gidaria aitaren lehengusuetariko bat zen. Gidariaren hanka egurrezkoa
zen eta begi bat oihal zati beltz batez estalia zuen. Ez zuen kamisetarik,
baina praka xeble batzuk zeramatzan, eta gehien liluratu ninduena
izan zen aitak bezalako pirata tatuaiia zuela, eta tatuaiaren behealdean:
Urrea, nire abizena. Aita eta bera hitz egiten egon eta gero aita niregana
hurbildu eta esan zidan:

- 13 urte betetzen dituzun egunean nire besoan dagoenaren moduko
tatuaiia egingo dizugu. Urrea abizena duena pirata egiten da. Zu pirata
on bat izango zara.

- Ni pirata? - galdetu nion.
- Ez duzu nahi? - esan zidan.
- Ez dakit ezpatak erabiltzen.
- Ikasiko duzu mutil!

Aitak esan zidan nire irakaslea bere lehengusua izango zela. Gizon
hark beldurra ematen zidan, baina gero ohartu nintzen gizon jator eta
indartsua zela.

Oso ondo entrenatzen ninduen, udan bere barkuan eramaten nin-
duen... Baina heldu da egun handia, 13 urte bete ditut! Gauean aitona,
izeba aita eta *Urrea* abizena duten beste batzuk barkuan gaude eta, uste

dut, tatuai egiteak min egingo didala. Izebak xiringa bat sartu dit. Zorabiatzen hasia naiz. Uf! Lurrean nago eta denek begiratzen diote nire tatuai berriari. Pozez zorutzen nago eta ez dakit zer esan. Denak daude pozik, eta nik esan dut:

- *Urrea* bada gure abizena, non dago gure altxorra?

Denak geratu dira aho-zabalik.

- Beno, bada, nik Majairekin aurkituko dut Korsikako Enperadoreak gure arbasoei lapurtutako mapa - esan du Elorri deituriko neska pirata batek.

Haren abizena ere *Urrea* izango da, berak ere tatuai baitu.

Marinel gehiago lortu dugu, altxorra deskubritu eta gero bakoitzarentzat urrezko bost txanpon egongo direla esanda.

Denak itsasontzian sartu eta gero, aingura igo dugu. Leman aitaren lehengusu indartsua dago eta Korsikarako bidean abiatu gara. Bost egun pasatu dira eta Korsikan gaude! Beno, haizea ere lagun izan dugu. Aingura bota dugu, Kaskiz nire osaba, Elorri ni eta aita maparen bila irten gara. Heldu garenean, gaztelura sartu gara. Elorri Enperadorearekin geratu da dantzan, eta Kaskiz, aita eta ni gaztelua miatzen hasi gara. Bost ordutan ez dugu ezer aurkitu, baina azkenean, Enperadorearen logelatik mapa hartu, Elorri abisatu, laurak gaztelutik irten eta aingura igotzeko seinalea eman dugu. Gero Enperadorearen itsasontzia ikusi dugu gure atzetik zetorrela. Gau osoa egon da segika, baina gure kanoietako batek palu nagusiari eman eta haizeak ezin izan du barkua aurrerantz bultzatu.

Urrea abizendunak gela batera sartu, egurrezko mahai baten jesarri eta Kaskizek, niri osabak, mapa atera du. Mapa boligrafoz markatuz, esan du:

- Gu hemen gaude.

Gero marratxo bete du mapa eta gurutze gorria borobilduz esan du:

- Eta hona etorri behar dugu, Urrekuduku irlara.



Eta berba horiek esan ondoren, denok joan gara ohera.

Gaur gauza asko egiteko asmoa dugu. Nahiko aurreratu dugu gauean zehar. Aitak esaten du hamabi egunetan irlan egongo garela.

Enperadorean ez digu enbarazurik egin, baina katalejutik ikusten da gure atzetik datorrela. Hala eta guztiz ere, guk badugu gure plana: hamar gizon, ni eta aitaren lehengusu indartsua joango gara uhartera. Aitak eta beste marinelek buelta eman eta itsasontzian itxarongo digute.

Bitartean Enperadoreak, uhartera heldu ondoren ezingo gaitu harrrapatu eta guk altxorrarekin alde egingo dugu. Plan ona da. Aitaren lehengusaren eta nire ideia izan zen; aitaren lehengusua eta ni lagun handiak egin gara.

- Aiba! Uhartea ikusten dut, baina Enperadorea gero eta arinago dator, ezingo dugu plana burutu. Hamar gizon, aitaren lehengusua eta ni txalupatik bajatu gara. Enperadoreak hamar gizon (bera kontatu gabe) bajatu ditu eta guri segika hasi da. Txalupatik bajatu garenean, oihan izugarri batean sartu gara eta derrepente hamar gizonetako bat zulo handi batera jausi da. Aitaren lehengusua oso altua denez, zulora bajatu eta handik atera du. Hogei bat tranpa daude! Enperadorearen gizonak segur aski zuloetara jausi eta guri aurreratzeko denbora emango digu.



Sekuoia baten atzean ezkutatu eta Enperadorearen gizonak nola jausten diren ikusi dugu. Gero, harri handi baten atzera joan eta borroka egitea pentsatu dugu. Denak zuloetatik irten direnean armak atera eta borrokan hasi gara. Ordubete borrokan ibili ondoren, ezpata sartu diot Enperadoreari. Bere gizon guztiak zaurituta egon dira, baina Enperadorea lurrean dagoela errebolberra hartu, aitaren lehengusuari mesprezuzko begirada bota, apuntatu eta kolpekaria sakatu du. Enperadorea lurrean geratu da, baina aitaren lehengusua ere lurrean geratu da. Bi gizonek txalupara sartu eta barkura eraman dute. Han, txalupaz itzuli eta hamar gizonak eta nik mapa begiratu dugu. Sekuoia ondoan dago altxorra!

Sekuoia topatu eta inguruan zuloak egiten hasi gara. Kutxa batzuk topatu ditugu eta pozik kutxekin txalupara igo dugu. Hiru buelta eman ditugu barkutik uhartera kutxa guztiak hartzeko.

Denok barkura bildu eta urrez betetako bat zabaldu dugu. Horrela egin dugu guztiekin, txiki-txiki bat aurkitu arte. Neuk zabaldu dut eta... nire txokolate gustukoenaz beteta dago!

Marinelak eta Urrea abizendunak itsasoan betirako nabigatzea erabaki dugu eta pena handia ematen didan arren esateak, aitaren lehengusua hil egin da.

Orain pozik eta amorratuta sentitzen naiz, Enperadore tontolapiko horri... edozer egingo niokel!





Ainhoa Ardanza Cuevas

Irabazlea 13-14 urteko sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2006 urtea



Basamortuko haizea



Basamortuko haizea

Basamortuko hiri batean, hor nonbait, gaua izan arren jada, etxe apal beta leihotik argia ikusi zitekeen.

Haurraren begiek adi begiratzten zioten amonaren begi grisei. Haren aurpegiak zirrara berezia sortzen zuen beti haurraren, eta umeari asko gustatzen zitzaizkion bere istorio miresgarriak, behin eta berriz entzunak izan arren. Haizea gogor entzuten zen etxean eta neskatila izutu zen.

- Zatoz ona maitea. -amonak haurrari. Honek berehala kasu egin eta sentitu zuen amonaren magalaren babesa. Han zen babestuta sentitzen zen toki bakarra.

- Ez duzu zertan basamortuko haizearen beldurrik eduki behar, laz-tana. Ez dizu ezer egingo nirekin zauden bitartean.

- Amonak, nondik dator haize guzti hau? -galdetu zion haurrak jakin-min osoz bere amonari.

- Basamortuko haizearen istorioa, zaharra bezain interesgarria da. - Erantzun zion amonak irribarrez.

- Kontaidazu amona! -eskatu zuen neska txikiak.

- Aspaldian, orain dela urte asko eta asko, bazen hiri handi batean bizi zen emakume bat. Jezabel zuen izena. Bere begiak gaua bezain beltzak ziren eta bere edertasuna ikaragarria zen, inguruetako emakume guztiek bere antza izan nahi zuten. Ez zen familia oso aberatsekoa, baina bere

aitak herentzia txiki bat utzia zion, hil zenean. Ondo bizi zen, etxea, gamelu bi eta ahizpa gazteago bat zituen. Eta ura. Basamortuko edozein tokitan hain beharrezkoa zen ura zeukan. Ezin zen kexatu. Baina bere barnean zerbait falta zitzaion. Ez zen libre. Askatasuna behar zuen. Bizi zen toki hartan, hirian, etxean, preso sentitzen zen, harrapatuta.

- Eta ez al zegoen pozik zeukanarekin? -haurrak galdetu zuen.

- Utzidazu istorioa kontatzen, maitea -eskatu zion amonak.

Gauza zen ez zegoela gustura han. Baina goiz batean, hirian zehar paseatzen ari zela, Jared ezagutu zuen.

- Nor zen Jared, amona?

- Jared gizon gazte bat zen, basamortuaren beste aldekoa. Handik aurrera hobeto ezagutu nahi zuen Jared eta ez zen denbora asko igaro maitemindu ziren arte. Jezabelek ez zuen inor hura beste maite mundu osoan eta denboraldi batez inoiz baino zoriontsuago izan zen.

- Denboraldi batez? Nola denboraldi batez? -haurra bere arreta osoa amonaren istorioan zeukan orain.

- Bere zorionaren aurrean, arazo handi bat agertu zitzaion. Jaredek basamortuko beste aldera itzuli behar zuen geratzen zitzaion familiarengana.

- Eta zer egin zuen orduan Jezabelek?

- Bere gauza guztiak bildu zituen. Etxea ahizpa txikiari utzi zion eta Jaredek eta biek gameluak eramane zituzten. Goizaldean karabana batekin irten behar zuten, oso goiz. Baina dena ez zen haiek espero bezala irten. Karabana goizean abiatu zen. Jende asko zihoan bertan, haur bat edo beste eta zahar samarrak ziren batzuk ere bai. Hotz egiten zuen, gaua baitzen oraindik. Irten zirenetik lau bat ordu zeramatzaten basamortuan barrena, harea mugitzen ikusi zutenean beraien aurrean. Harea ekaitza zela pentsatu zuten hasieran, baina ez zen horrela.

- Zer zen? -kezkaturata galdetu zuen.

- Karabana-lapur ezagun batzuk ziren. Eskorpioiak bezala ezagutzen zituen jendeak. Badakizu zergatik ziren ezagunak, txiki?



- Zergatik?

- Beraien bidean aurkitzen zutena lapurtzen zutelako, eta jendea bahitu, gero esklabo bezala saltzeko leku urrunen batean.

Jared asko izutu zen eta Jezabel bere gamelura igoarazi zuen laster. Karabanan zihoan ilara luzea hautsi zen. Hura zoramena zen. Haurrek negar egiten zuten eta jendeak ahal zuen bizkorren ihes egiten zuen. Jezabel eta Jaredek zortea izan zuten. Nahiko atzen zihoazen eta karabananen aurreko aldetik izan zen eraso. Ihesean eman zuten gau eta egun oso bat, gamelua nekearen nekez lurrera erori zen arte.

Lo egiteko duna baten azpiko aldean etzan ziren. Baina Jared ez zegoen ondo. Izerditan eta sukarras igaro zuen gau osoa. Goizaldeko orduetan Jezabel bere alboan eserita zegoen lo egin ezinik. Bazekien Jareden gaixotasuna larria zela, baina ez zekien zer egin. Ezertarako ez zuela balio sentitu zuen. Jaredek begiak ireki zituen eta Jezabelek esan zion: “Jared, Jared, hemen nago zure alboan” Eta honek erantzun zion: “ez nazazu inoiz ahaztu Jezabel. Nire bihotza beti zurekin egongo da eta libre izango zara azkenean”

Jezabelek negar egin zuen Jared hil zenean.

Hurrengo goizean Jezabelek Jareden gorpua duna haren azpian lurperatu zuen. Jared beti egongo zen han, basamortuan jaio eta basamortuan hil zen.

Hiru egun eta hiru gau pasa zituen Jezabelek basamortuan noraezean. Janaria eta ura bukatu zitzaizkion, baina bizitzeko behar zuen arrazoia galdua zuen jada. Hutsik sentitzen zen bera gabe, ezer izango ez balitz bezala. Eta ez zen ezer Jared gabe. Baina hark arrazoia izan zuen. Jezabel denbora gutxira hil zen eta aske eta bakean egon zen beti basamortuan. Jezabelen zati bat basamortuko haizea bilakatu zen eta kontatzen denez, ordutik berak hainbeste maite zuen pertsonaren izena esaten zuen behin eta berriz, bera bizitzara itzuli nahi izango balu bezala.

- Orduan orain Jezabel Jaredi deika ari zaio, amona? -galdetu zion neskato txikiak amonari.




- Baliteke, maitea, hori ez dugu sekula ziur jakingo.

Haurra leihora hurbildu zen isilik eta poliki-poliki ireki zuen. Burua atera zuen eta gaueko haize freskoak aurpegia laztandu zion.

- Egunen batean ni ere basamortuko haizea bezain librea izango naiz amona.

Amonak irribarre batez erantzun zion.





Mikel Carracedo Lizundia

Akzesita 13-14 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2006 urtea



Agur



Agur

MARTXOAK 6

7:30 am

Autobuseko erlojuak zazpi eta erdiak markatzen ditu. Benetan luzea egiten ari zait ospitalerako bidea. Jendeari begira geratzen naiz, niri zergatik tokatu zaidan galdetuz. Gero eta okerrago sentitzen naiz, benetan larria dela pentsatzeko puntura arte, baina oraindik ez diet ezer esan familiakoei ezta lagunei ere.

8:45 am

Hamar minutu hemen egon ostean mediku gazte bat hurbildu zait, itxaroteko esan eta hemen utzi nau. Izugarrizko gogoia dut sartzeko eta eginiko proben erantzunak ikusteko, baina beldur sentazioa ezin dut ukatu. Gaixotasunak ez dira broma eta arazo handi batean sartuko nintzateke.

9:00 am

Denbora zelan pasatzen den konturatzen naiz. Eskumuturrean daukadan nire lobak oparitutako erlojuaren orratzek tik-tak, tik-tak... soina ateratzen dute eta denbora alperrik galdu dudala konturatzen naiz. Isiltasun gogorra da ospitalekoa, baina neska ile gorri batek nire izena ahoskatu du, eta akabo isiltasuna. Altxatu naizela ikusiz, eskuineko besoarekin pasatzeko seinalea egin dit. Erizainak begi melankoliatsuekin begiratuz, metalezko konplementu guztiak kentzeko eskatu dit. Gaixotasun larria dudala sumatu dut bere hitzetan.

4:05 pm

Larrialdiz ingresatu naute. Beldur sentsazioa inoiz baino gehiago sentitzen dut. Ni baino indartsuagoa dela badakit eta honek ez nau batere pozten. Ia segunduro jausten zait malkoren bat begiren batetik, eta aurpegia bustita daramat egun guztian zehar.

7:00 pm

Aita orain dela bost minutu joan da, benetan gizon jatorra dela konaturatu naiz, dena gure onerako egiten duen horietakoa. Sufrimendu handia sortu diodala badakit eta horrexegatik esan diot joateko, nire ahizpa gelditzen baita gau honetan. Ama faltan botatzen dut, eta horrelako momentuetan oraindik gehiago, baina badakit bueltatzea ezinezkoa dela.

MARTXOA 13

11:56 am

Gaur aste bete da hemen nagoela. Egia esan behar bada ez naiz sartu nintzenean baino askoz hobeto sentitzen. Gaur nire mutil laguna izan da hemen, lehen egunetik dena zekiela aitortu dit eta denbora behar duela hotzean pentsatzeko. Hasieran asko haserretu zela esan dit, ez zuela inola ere nitaz hori pentsatuko. Nigan zeukan konfiantza guztia galdu duela, baina ez dela hitz egiteko leku aproposa eta alta ematerakoan denbora izango dugula. Ondoren, lore sorta bat eman eta bihar berriz etorriko dela jakinarazi dit.

Gau tonto batengatik galdu dut maite dudan mutila, eta medikamentuz betetako bizia. Txarto egin dudala aitortzeak ez dit ezertarako balio eta inpotentzia handia sortzen dit.

4:45 pm

Bikote bat ekarri didate, nire adineko neska bat dirudi, ez ditu 20 urte baino gehiago izango. Ez du inorekin hitz egiten, negar eta negar ari da, denok bezala. Ez dakit zer duen, baina hemen denok daukagu zerbait eta bakoitzak berearekin nahikoa du. Hobe izango da ni ez sartzea.



6,15 pm

Berri txar bat eman dit sendagileak. Ez diet emandako medikamentuei ondo erantzuten eta hori arazo bat dela azpimarratu du. Horrela jarraituz gero, beste solairu batera eraman beharko naute. Oso berandu hasi ziren gaixotasuna kontrolatu nahian eta honek azaro larriak ekarri ditzakeela ere gaineratu du.

7:00 pm

Gaur loba etorri zait ikustera, baina oso denbora gutxi geratu da. Marrazki bat eman dit eta musutxo handi bat. Berehala eraman du bere amak, beldurra zuen. Gizajoa!

Gero eta indargabetuago nagoela badakit, baina inor kutsatu ez dudala jakinda lasaiago sentitzen naiz. Ezin izango nuke horrela joan.

02:08 am

Ekaitz gaua da, txikia nintzenetik beldurtzen naute ekaitzek. Lehen orain baino gehiago, baina oraindik ere errespetua diet. Ahizparen eskua hemen izanda faltan botatzen dut etxeko beroa. Dena bukatzeko gau aproposa dela ziur nago, errekuperatzen banaiz ere beti bizi izan beharko dut honekin. Badaude kontra egiteko irteerak, baina poliki-poliki nire gorputza moteldu egingo da guda galdu arte. Ez dut hori denek ikustea nahi, ezta ere nitaz erruki izatea, horregatik dena lehenbailehen bukatzea nahi dut.

Hau irakurtzen bazaude ziur aski leihotik behera begiratu duzulako da, amarekin bueltatzeko ordua dela ziur nago. AGUR.





Leticia Hernandez

Irabazlea 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



Koadro baten istorioa



Kuadro baten istorioa

XVII. mende aldera, Martin koadro bat marrazten hasi zen, bere etxeko isiltasunaz inguraturik. Koadro honek, oso gutxik ezagutu zuten istorio tragiko bat azaltzen du, amaitu gabeko istorioa.

1619. urtean, Desirek 9 urte bete zituen. Familia burges bateko kidea eta aitaren alaba kuttuna zen. Herriko jauregirik handienean bizi zen, kotoi eta lore artean urrezko kaxatxo batean babestuta balego bezala. Herrian gertatzen ziren arazo guztiez at zegoen, bere mundu fantastiko partikularrean bizi baitzen. Bere mundu horretan, printzesa politik printze urdinarekin ezkontzen ziren eta *Edurne zurik* ez zuen inoiz sagar gorritik jaten. Kolore biziak zituen gogoko, eta bere logela zetazko gortinez, ispiluz eta kolorezko kristaltxo beteta zeukan. Oso neska polita zen, etxeko neskarik ederrena. Zetazko jantziak zituen gogoko eta bere ile horaila beti kopeta gorri batean lotuta eramaten zuen.

Guztira 13 bat zerbitzari zituzten familia osoaren esanetara. Baina Desireren neskamea, zerbitzari bat baino gehiago, bere bigarren ama zen:

- Egun on maitea. Goiza da, eta eguzkia zu bezain distiratsu dago gure eguna argitzen.

- Ez Amadea, oraindik gaua da. Ez dago eguzki distiratsurik, Ilargiaren argia baino ez da.

- Ez maite kuttuna, ez duzu oilarra entzun? Tira, altxa zaitetz zure ama etorri baino lehen.

- Bai Amadea. Baina ez duzu zerbait ahazten?

- Bai ba! Zorionak!!- esan zion, amak atea jo gabe logela barrura sartzeaz zegoela.

- Desire, altxa zaitetz behingoz! Eta zu, Amadea hobe duzu lanean jarraitzea. Tira atera iezaiozu jantzi berria! -agindu zion amak- Gaur merkatura goaz eta.

- Tira, jantz zaitetz. Eta, ahaztu gabe. Kortsea estutu eta luma bazina bezala ibil zaitetz.

- Entzun duzu ezta? -esan zion Amadeak bere amari burla eginez- Eta kontuz lurretik botata ibiltzearekin, bai? Merkatuan dirudunak zeintzuk zareten igarri behar da eta!

Eta honez gero Desire jangelara jaitsi zen gosaltzera. Helena, neskatxaren ama, eta bere beste alaba, Ariadna, gosaltzeko prest zeuden. Baina Horazio, bere senarra, Desire zoriontzeko irrikatan zegoen.

Ariadnak eta bere amak izaera berdina zuten. Biak oso gogorrak eta nahiko zekenak ziren. Desideren logela kolorez beteta baldin bazegoen, Ariadnaren logelan krema koloreak ziren nagusi. Eta, 13 urteko neskatxa bat baino ez izanda, bere gelan, ez zegoen inolako panpinarik, koardro eta bitxi pare batzuk baino ez. Desire horaila bazen, Ariadna eta bere amak oso azal iluna zeukaten eta ilea motots estu batean batuta eramaten zuten.

Gosaldu eta gero Desire, Amadearen bila joan zen:

- Amadea! -dei egin zion- Lehen ez dizut amestu dudana kontatu!

- Amak sukaldean harrapatzen bazaitu, aingeruekin behintzat, ziur ez duzula amestuko!

- Momentutxo bat baino ez da izango eta! Begira: ama, Ariadna eta hirurok, nire urtebetetzea dela eta, merkatura zetazko oihal batzuk eros-tera irteten gara. Baina bat-batean sorgin itxurako emakume batek zera esaten dit: "Egun on polit hori. Adi-adi ibil zaitetz, gaurko egunean zure begiak iluntasunean geratuko dira eta!". Eta besterik gabe alde egiten du.



- Jesus, zelako gauzak amesten dituzun neska! Tira, ez eman garrantzirik, amets bat baino ez da eta! -esan zion masailean musu bat eman eta gero.

Eta besterik gabe, ama eta ahizpa nagusiarekin merkaturantz abiatu ziren, bere urtebetetze-oparia erostera. Baina Desirek espero ez zuena gertatu zen. Ama postu txiki batean oihal hori eta urdin batzuk aukeratzeko zegoela, neskatxa, oiloak saltzen zituen gizon baten postura hurbildu zen. Baina, bat-batean, egurrezko postuen artean konkordun emakume itsu bat hurbildu zitzaion:

- “Egun on polit hori. Adi-adi ibil zaitez, gaurko egunean zure bizitza argi gabe geldituko da eta!”.

Orduan, Desire hitz gabe gelditu zen, konkordun emakume hura bere makilaren laguntzaz urruntzen zihoala konturatu gabe. Amak bere alabaren falta sumatu zuenean, atzera begiratu zuen atzeko posturen batean aurkitzeko asmotan:

- Baina Desire! Zer egiten duzu hor, oilo-gorotz artean! Etor zaitez hona oraintxe bertan, kontxo!

Desire, amak agindutakoa betetzera zihoala, Ariadnaren garrasia entzun zuen. Desire bidea gurutzatzen zebilela zaldi pare batez gidatu-



tako gurdia gainetik pasatu zitzaion, eta neskatxa lurrean konorte gabe gelditu zen.

Ariadnak oihalak bere lekuan utzi zituen eta bere ahizpa laguntzera joan zen. Ama, aldiz, zorabiatuta lurrera erori zen. Gurdiaren jabea, beldurturik, bertatik jaitsi eta Desire jauregira eraman zuen. Ariadna, aldiz, ama laguntzen geratu zen.

Jauregira heldu bezain pronto, Amadea bere neska kuttuna sendatzen hasi zen. Bitartean jauregiko guardiek, Horazioren agindupean, gurdia-
ren gidaria preso hartu zuten:

- Zer egingo dugu tipo honekin, jauna?
- Oraindik ez dut erabaki. Baina momentuz, eta nire alaba itzartu arte, kartzelara preso eraman ezazue. Nire alabari horrelako zerbait egingen dionak gogor ordaindu beharko du.

Amadea denbora guztian Desireren alboan geratu zen, hesgailuak behin eta berriro aldatzeko. Handik gutxira, Ariadnak ama etxera eraman zuen besotik helduta. Bertara heldu bezain laster eta bere alabaren egoeratik arduratu gabe, bere itxura txukuntzera joan zen.

Jantzia aldatu eta gero bere alabaren gelara abiatu zen:

- Nire alboan egongo balitz ez litzaioke ezer gertatuko, baina ez due-
nez inoiz nik esandakoa betetzen ba...
- Beno anderea, gertatutakoak ez du atzera pausorik, beraz... dagoe-
narekin aurrera egin beharko da -moztu zion Amadeak.

Hurrengo egunean, Desire eskuak mugitzen hasi zen eta hitz batzuk esan zituen. Jarraian Amadea hurbildu zitzaion:

- Desire, zelan zaude?
- Amadea... non zaude? -galdetu zion ahots fin batekin
- Bihotza, zure ezkerretara nago.
- Ez zaitut ikusten! Amadea, piztu kandelak. -esan zion beldurturik.
- Baina Desire, eguerdia da eta zerua zure begiak bezain urdin dago.



Orduan Desire, heriotza bezain zuri jarri zen. Aurreko egunean ikusi zuen sorginak esan bezala, bere begiak iluntasunean geratu ziren.

Egun hartatik aurrera, makina bat aldiz esnatu zen, hura guztia gaueko amets gaiztoren baten emaitza besterik izango ez zenaren itxaropenarekin. Baina egun hartatik aurrera bere alaitasuna amatatu egin zen, kandela bat izango balitz bezala, eta tristura kroniko baten sakontasun beltzenez murgildu zen.

Ariadnak, egun pare batzuk eman zituen bere alboan lo egiten, norbaiten presentzia izan zezan. Baina Helenak, aldiz, ez zuen bere alabaren egoera hura ikusi nahi eta ateko zirrikitutik baino ez zuen begiratzen.

Ohetik jaiki zen egunean, Horaziok istripua eragindako gizonarekin zer egin nahi zuen galdetu zion. Eta orduan, bere alaba kotoi artean babestuta jarraitzen ez zuela konturatu zen:

- Tipo hori nire zerbitzura nahi dut bizitza osorako. Ni itsua izango naiz, baina bera, nire sufrimenduari bizi beharko da.

Hurrengo egunean Viriato bere esanetara zeukan, eta gizona hain damututa zegoen, ezen ihes egiten ere ez baitzen saiatu. Viriato gizon altua zen eta, beste nekazari batzuen antzera, oso indartsua. Txikitatik oso maitatua izan zen auzoko eta lagun artean eta bizitzan zehar injustizia asko jasan behar izan zituen, baina ez zuen ulertzen zigor horren zergatia. Izan ere, zeinek ez du istripu bat izan?

Baina Desireren bizitza oso laburra izan zen, buruan jasotako kolpeak sortutako hemorragia ez baitzen behar bezala osatu. Orduan, bera hiltzean, Viriato libre geratu zen. Baina ez berak uste zuen bezain libre. Desire bizi zelarik eta Amadearekin egindako irteera batean, emakume konkordunarekin topo egin zuten txoko batean. Eta Desirerek, aukera aprobeztatuz eta amorruez beteta eskatu zion bezala, Viriatori konjuru bat egin zion. Horren ondorioz, bere bizitzako azken uneetan, Desireri hainbeste min eman zion gauza bera gertatuko zitzaion


Viriato, gure istorioko Martin da, Martin Viriato. Bere koadroa amaitu gabe geratu zen, neskatxaren begirada marraztea lortu ez zuelako. Hura amaitu baino lehen itsu geratu baitzen.





Koadroan, Desire zutik agertzen da. Bere aurrean Viriato belauniko dago, bere begiak, urrezko erretilu batean ematen dizkiola.

Viriatoaren buruan neskatxaren begirada tristeak jarraitu zuen, mailu anker bat balitz bezala, kolpe mingarri eta monotonoak joz, bere bizitzako azken egunerarte.



Markel Sanchez Zelaia

Akzesita 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2006 urtea



Zoroaren sekretua



Zoroaren sekretua

- Ez, ez eta ez!
- Baina Martin, zergatik ez? Beti jartzen duzu pegaren bat.
- Esan dizut, agure hori zoraturik dago!
- Beno, egia da bere herrixkakoek zoratuta dagoela esaten dutela, baina horrek ez du esan nahi hori egia denik.
- A ez? Orduan, jenerala zela, zergatik bota zuten armadatik?
- Bai, badakit armadan ere psikologoarengana joaten zela eta azkenean guztiz zoratu eta armadatik bota zutela, baina Martin, 50 urte pasatu dira hori gertatu zenetik.
- Eta ezin duzue erretiratutako beste jeneral bat aurkitu? Ahal bada zoraturik ez dagoena?
- Elkarrizketa bat besterik ez da.
- Eta zeozer egiten badit? Zeozergatik bota zuten armadatik.
- Aizu, ni ez nago hemen zure txorakeriak entzuteko, gainera, lan ugari daukat eta ez dut telefono dei honekin jarraitu nahi, beraz, Doroteo Quesada jeneral ohiaren etxera joango zara eta inmigrazioari buruzko elkarrizketa egingo diozu.
- Mesedez, beste jeneral ohi bat izan dadila.
- Ezetz esan dizut, gainera, bera eta beste bi jeneral izan ziren inmigrazio arazoan buru.

- Beraz, beste bi jeneral ere bazeuden, zergatik ez noa horiengana?

- Hilda daudelako, eta gainera, zeozergatik naiz zure nagusia, beraz, nik diodana egingo duzu, ez baduzu beste leku batzuetara curriculumak bidaltzen hasi nahi.

- Baina...

- Ezazu txintik ere esan! Badakizu zein den zure egitekoa, agur.

Horrela bukatu zen telefono elkarrizketa hura, nahiz eta nagusiak umore onez hasi, haserre bukatu zuen, baina ez zen nire errua! Beti bilatzen zuen aitzakiaren bat lanik aspergarrienak eta astunenak niri bidaltzeko, baina lanik errazenak eta famatuei elkarrizketak Mariari bidaltzen zizkion beti. Maria gure bulegoko neska ilehori liraina da eta nagusia itsututa dauka, eta hori gutxi balitz, Maria beti ari zaio losintxa eta lantzantxoak egiten, eta honen ondorioz bidaltzen dizkio lan horiek.

Gau hartan Doroteo Quesada jeneral ohiari buruzko txostena irakurtzen hasi nintzen, hurrengo eguneko elkarrizketa prestatzeko. Txostenak zioenez inmigrazio arazoen buru zela, arazo psikologiko batzuk izan zituen, eskizofrenia, batzuetan bi identitate eta abar. Gaur egun Espainiara gero eta etorkin gehiago datozenez, honi buruz berak duen iritziarekin artikulu bat idatzi behar nuen, baina irakurritakoaren ondoren ez nintzen asko fio. Berandu zen eta ohera joan nintzen, baina hurrengo eguneko elkarrizketa ezin nuen burutik kendu.

Hurrengo egunean Gaztela Leongo Herrera de Pisuerga izeneko herri txiki batera abiatu nintzen, nagusiaren instrukzioak jarraituz. Bertara heltzean hiru kilometro egin behar izan nituen oinez bere etxolara heltzeko. Bere etxea ez zen oso handia eta egurrez eginda zegoen, eta egia esateko ez zuen segurtasun inpresio handirik ematen, egur batzuk usteltzen hasiak baitziren. Etxera hurbildu eta arnasa sakon hartu nuen, gero atea jo nuen.

- Nor dabil hor?- agure baten ahotsa entzun zen ate atzetik.

- Martin Etxegarai kazetaria naiz, elkarrizketa baterako geratuak ginen.



- Ze elkarrizketaz ari zara hitz egiten? Alde hemendik edo eskopeta-
ren bila joango naiz!

- Baina ez al dizute elkarrizketa baterako abisua eman?

- Niri ez didate ezer esan!

Hori entzutean seko geratu nintzen, nagusiak agureari abisurik eman
gabe bidali ninduen bere etxera! Eta gainera elkarrizketa ondo irten
zedin zerbait asmatu behar nuen Quesada jeneral ohiaren etxean sartze-
ko.

- Aizu! Zu izan al zinen Doroteo Quesada jeneral famatua?

- Bai, baina hori orain dela urte asko izan zen.

- Gustatuko litzaizuke inmigrazioari buruzko elkarrizketatxo bat egi-
tea?

Pentsakor gelditu zen segundo batzuetan.

- Inmigrazioa diozu? Beno, interesatua bazaude zeozertaz hitz egin
dezakegu, sartu!

Atea zabaldu zidan eta bere etxera sartu nintzen, agureari begiratu
nion, bularreraino heltzen zitzaion bizar zuria zeukan eta buruan ez
zeukan ile askorik; aurpegia, berriz, zimurrez betea zeukan, baina gor-
puzkerari begiratu nionean osasuntsu zegoela ohartu nintzen, nahiz eta
90 urte izan. Ondoren bere etxeari erreparatu nion, nahiko zaharra
ematen zuen barrutik eta ez zuen gauza handirik, eta bertako gauzarik
modernoenak mahai gainean zeukan irratia zela esango nuke.

- Eta zer jakin nahi duzu inmigrazioari buruz?

- Ez dakit, zu horretan jeneral modura lanean aritu zinenez, eta gaur
egun gauzak dauden moduan daudenez, zure iritzia jakin nahiko nuke.

Aulki batean esertzeko esan zidan eta ardi esne pixka bat ekarri zidan.

- Nire iritzia diozu beraz, inmigrazioa asko aldatu da azken urte
hauetan.

- Aldatu?





- Bai, gaur egun irratian eta telebista delako horretan egunero esaten da zerbait, pateretan 50 lagun etorri direla edo Melillako hesia salto egiten ez dakit zenbat harrapatu dituztela eta abar, baina lehen, jendeak ez zekien ezer honi buruz.

- Beraz, gaur egun gauzek okerrera egin dute?

- Ez, orain gauzak hobeto daude, jendeak badaki zer gertatzen den eta gobernuak ezin du ezer egin, baina lehen ere inmigrazioa bazegoen eta gobernuak ezkutatu egiten zuen. Ni jeneral nintzela gauza izugarriak ikusi nituen, etorkin batzuk jipoitu egiten zituzten eta patera batzuk nahita ondoratu edo hesian tiroka hil.

Gizon hura zoratuta zegoela gogoratu nuen eta ez nion garrantzirik eman esaten ari zenari, nola egingo zuten, ba, horrelakorik!

- Agian ez didazu sinistuko, baina begira honi.

Agureak bere armairuko kaxoi batetik argazki batzuk atera zituen eta erakutsi egin zizkidan. Derrepentean, hotzikara batek nire gorputza zeharkatu zuen eta agureak egia zioela konturatu nintzen. Argazki haietan berak esandakoak eta txarragoak ageri ziren! Halako batean agurea hizketan hasi zen:

- Inoiz ez diot inori zuri esandakoa esan, ezta argazki hauek erakutsi ere, orain arte beldurra izan diot gobernuari, baina orain 90 urte ditut eta egia esatea berdin zait jada, beraz, zuk jakingo duzu zer egin esan dizudanarekin.

- Baina orduan zu ere egon zinen guzti honen artean!

- Begira, inmigrazio arazoan buru egin nindutenean ni eta beste bi jeneral geunden, beste bi horiek denbora zeramatzen gauza horiek egiten, baina nire ezezko jokabidea ikusi zutenean goizeko kafea manipulatu eta drogatuta egiten ninduten. Ez nekien zer gertatzen zitzaidan, eta psikologo batengana joaten hasi nintzen, baina psikologoa erosi egin zuten eta zoratuta nengoela esan zuen, ni armadatik botaraziz eta fama txarra emanez. Orduetik hemen bizi naiz, guztiz isolatuta.

Bazkaltzera gonbidatu ninduen eta arratsalde osoa pasa genuen hizketan, harridura aurpegia kendu ezin nuelarik. Gaua sartzen hasia zen

eta joan beharra neukan, agur esan nion eta beste egun batean etorriko nintzela, hau ez zela horrela geratuko. Autoa hartu eta etxerantz abiatu nintzen.

Hurrengo egunean nagusiaren deia jaso nuen:

- Bai?

- Ni naiz, zelan joan zen atzoko elkarrizketa?

- Ezer baino lehen, nola bidali ninduzun hara agureari abisurik eman gabe?

- Beno, ez zeukan telefonorik. Gainera eskerrak ez genuela beste egun bat gehiago atzeratu elkarrizketa.

- Zer esan nahi duzu?

- Ez al dakizu zer gertatu den ala? Gaur goizean bere artaldea zaintzen zegoela bihotzekoak eman eta hil egin da, ume batzuek aurkitu dute bere gorpua.

- Benetan ari al zara?

- Bai, gainera, zer esan zizun, ongi irten al zen elkarrizketa?





Bat-batean gorputza gelditu egin zitzaidan, berak esandako guztia azaltzera nindoan baina atzera egin nuen, gobernuan pentsatu nuen, denak nire aurka etorriko ziren eta Quesada jeneralari egin ziotenaren antzekorik ez nuen nahi niretzat.

- Martin? Hor al zaude?

- Bai, zera... ez zidan ganorazko ezer esan, esan nizun zoratuta zegoela.

- Beno, zer egingo diogu ba, gero deituko dizut zure hurrengo lanaren berri emateko, agur.

Hurrengo egunean jeneral ohia zenaren etxera joan nintzen eta leihotik sartu ondoren argazkiak hartu nituen. Hurrengo egunean argazkiak nota anonimo baten ondoan komisaria baten buzoian utzi nituen. Gobernuak parte hartuko zuen eta informazio hura ez zen argitaratu inoiz irten.



Itsaso del Olmo Lopez

Irabazlea 17-18 urteko sailean
San Jose - Jesuitak ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2006 urtea



Hego-haizea



Hego-haizea

ANTTONEN ETXABEA

Ni bertokoa naiz, kresal hautsez estalirik dagoen herri arrantzale honetakoa. Nire kabuz galtzak janzten ikasi nuenean irten nintzen lehen aldiz itsasora eta bizitza osoan ez dut beste ezer egin, ozeanoetan barrena nire egunak igaro zaizkidala esan dezaket.

Berba gutxi egiten dut, nekatuta bainago ahoa irekitzen dudan bakoi-tzean kresalaren gazitasuna dastatzen, honek bizitza nahiko gazitu izan dit eta harrezkero, arrazoi sendo bat eduki ezean nahiago dut isilik egon.

Hala ere, nire hitz putzuaren hondoan badago oraindik portu zahar honetan usaindu daitekeen istorio bat. Ume koxkor talde bat ginenean, kale zaharretan gora eta behera saltoka igarotzen zitzaizkigun egunak, erdi biluzik eta arez betetako abarketak bidetik galtzear eramaten genituela. Guretzat dena zen abentura ikaragarri bat. Hondartzan hondoa jotako batela piraten gerraontzi erraldoia zela iruditzen zitzaigun, moila zaharreko sare multzoak guk arpoiez harrapatutako baleak ziren, Ternutik ekarritakoak... baina benetako zirrara sortzen ziguna Anttonen etxabea sartu ahal izatea zen.

Aspaldi alde batera lagatako leku ilun hark gure irudimenak zirikatzen zituen sartzeko deia eginez. Beti zarratuta aurkitzen genuen atea-ren gainean oraindik irakurri zitekeen *Hego-Haize* jartzen zuen egur pusketa bat. Baina gure sekreturik preziatuena nire etxearen atzealdean

aurkitzen zen, sareetan galdutako arraun zatien eta amu ugertuen artean baitzegoen Anttonen etxabera sartzeko leiho ttipi bat. Bertatik igarotzen ginen gure benetako sekretua zen zulo ilun hartara. Armiarma sareen artean ia-ia hauts eginda zeuden milaka tramankulu aurki zitezkeen izkina guztietatik botata. Berun pusketak, salabardoak, kanaberak, buia gorriak eta beste hainbat aparailu naufragio batetik aterata ziruditenak. Gauza guzti haiekin denbora konturatu gabe pasatzeko nahikoa ziren hainbat jostailu eraiki zitezkeen. Ondoren, etxabetik ateratzen ginenean, gure harrapakinak erreka ondoko paduran erdi hondoratuta zegoen potin txiki baten gordetzen genituen inork aurki ez zitzaizkion.

Baina denborak aurrera egin zuen gure piraten ipuin horietan ere eta konturatu gabe *Hego-Haize*ko hautsez nekatu eta herriko tabernetara joaten hasi ginen. Bertan entzun nuen lehen aldiz Anttoni buruzko istorioa. Marinel batek esan zidanez etxabe hura *Hego-Haize* izeneko ontziaren patroia zena, herriko arrantzale famatuarenarena alegia. Itsasoa inork baino hobeto ezagutzen zuen gizona, bere eskuekin eraikitako txalupan bizia aurrera ateratzen zuen hura... Gaztea izan arren, ordurako bazuen emazte eder bat eta hiru seme. Herriko neska guztiek senartzat nahi zuten gizon gaztea zen Antton; langile aparte, fina eta dotorea. Egunero ateratzen zen itsasora arrainetan eta, zalantzarik gabe, tona gehien ekartzen zituen txalupa *Hego-Haize* izaten zen. Batzuen esanetan, gizon hura zorionak beti laguntzen zion gutxiatariko bat zen. Beste batzuen arabera, berriz, kemena, adorea eta sendotasuna ziren Anttonen sekretua.

Baina, denok dakigun legez, zoria ez da egoten beti baten alde, eta batzuetan kemena eta adorea ez dira nahikoa izaten arrakasta lortzeko.

ITSAS NESKAREN KANTUA

Udako egun bero baten gertatu zela diote. Atuna ugaria zen baina urruti zebilen. Goizeko ordu txikietan irten zen Antton portutik bere tripulaziorrekin, arrain-sardara iristen lehenak izateko asmoarekin. Haize ona eta belak guztiz erantsita zituela *Hego-Haize* kalatxoria zirudien olatu guztien gainetik.



Arrain-sardara heldu bezain laster, Antton eta bere mutilak lanean jarri ziren jo eta ke, atuna oso ugaria zen goiz hartan. Baina eguerdi aldera beroa jasanezin bihurtu zen. Eguzkia buru gainean tinko mantentzen zen eta uretan islatzen ziren izpiak belauntziko mutilen azal kresaltsuak kiskaltzen zituen. Hala ere, ez zioten amaiera eman nahi inoiz baino ugariagoa zen arrantza hari.

Inguruko txalupak tresnak batzen hasi zirela konturatu zen Antton, beroak ez baitzuen etena emateko asmorik.

- Nintzako bakarrik itxiko dozue hau dana? -esan zien beste ontzietako patroiei.

- Guk buelta egingo dogu -erantzun zion marineletako batek bere lema biratzen zuen bitartean.- Bero larrei, arrain larrei... honek ez dakar ezer onik. Eizu buelta zeuk be, hau errekaizia ondik pare bat ordu gehiago egongo da ta, nahikua portura heltzeko.

Baina Antton eta bere mutilak bertan geratu ziren arrainak txalupatik gainez egin zuen arte. Orduan bai tresnak batu eta etxerantz abiatu ziren. Irten eta denbora gutxira, ordea, haizea guztiz eten zen eta txalupako belakiak masta puntatik zintzilik geratu ziren. Anttonek arraunak ateratzeko agindua eman zuen arren, ontziak pisu gehiegi zuen gizon nekatuen indarrarekin aurrera egiteko. Beroa geroz eta sargoritsuagoa bihurtzen zihoan eta ekaitz usaina hartuta, patroiak arrainak uretara bueltatzeko agindua eman zuen, arraunean portura ahalik eta arinen sartzeko asmoarekin.

Arratsalde hartan sekulako galarrena batek itsasoa astindu zuen haize bortitz eta euri ikaragarriekin. Gauelderako *Hego-Haize* oraindik ez zenez portura iritsi, haizea baretu bezain laster hainbat potin atera ziren desagertuen bila. Egunsentia iristean oraindik ez zen haien arrastorik ageri eta marinela txarrena pentsatzen hasi ziren. Egun guztia igaro zuten itsasoan, txalupa baten arrakila gorantz begira ikusi zuten arte. Inguruan ez zegoen ezer, gorpu bat baino ez egur pusketa baten gainean; Antton zen, burua galduta eta azala eguzkiagatik zizko eginda zuela, baina bizirik.



Bere onera bueltatu zenean gertatutakoa kontatzeko ahaleginak egin zituen: haize beroa, galarrena, ekaitza eta azken olatu erraldoia ahoa zabalzabalik zuela txalupa jateko prest... ezin izan zuen ezer gehiago gogoratu eta eskuak aurpegira eramanda bere negar malkoak ezkutatu zituen.

ZORAMENA

Naufragio haren ondoren, Antton guztiz aldatu zen: aurpegia zahartu zitzaiola zirudien, bekokia tximurtuta zeraman egun guztian eta ez zuen ia hitzik egiten inorekin. Herrikoen ustez bere tripulazioaren desagertzearen errudun sentitzen zen, inor salbatu ezin izanak bere barnea sutan jartzen baitzion. Hala ere bere lanari ekin zion berriz, inor baino hobeagoa izaten betiko lez.

Beste txalupa bat eraiki zuen eta *Beti Hego-Haize* izenarekin atera zuten itsasora berak eta bere tripulazio berriak. Herriko jendeak ez zuen begi onez ikusten, baina Anttonek lana egin behar zuen eta beti zeuden mutil gazteak berarekin itsasoratzeke prest. Horrela igaro zitzaizkion egunak: arrantzarako bakarrik biziz. *Hego-Haizeren* oroitzapena bere eguneroko mamua zen, leku guztietara berarekin zihoan hura, edo leku guztietara berarekin eramaten zuen hura...



Eta azkenean zoritxarra berriz gertatu zen. Ekaitz baten ondoren Beti *Hego-Haize* zizko eginda aurkitu zuten portutik ez oso urruti, eta handik metro gutxitara bizirik zegoen pertsona bakarra beste bati eusten: Antton zen, bere semea besoetan zeraman eta zoramenezko hitz galduak ahoskatzen zituen... itsas neska bati buruz zebilen berbetan, begirada galdu batekin itsas neska maite zuela behin eta berriz errepikatzen. Zoramenak burua guztiz estali zion betiko.

Herriko marinel onena hondoratuta geratu zen bere putzu ilunean. Ilea urdindu zitzaion eta ez zen berriz itsasora atera, portutik bueltaka ematen zituen egunak begirada olatu tartean galtzear zeramala. Inork ez zion hitz egiten, emakumeak zurrumurruka hasten ziren bere albotik igarotzen ziren bakoitzean eta ez zen gai etxera joateko. “Hego-Haize” etxabea igarotzen zituen gau galduak bere semearekin ametsetan...

Egun euritsu baten herriko portura ontzi irlandar bat heldu zen gizon zauritu bat herrian uzteko asmoz. Hau lurreratu ondoren, gau aldera hain zuzen, ontzia berriz itsasoratu zen eta egun hartatik aurrera inork ez zuen berriz Antton ikusi portuko izkinetan zehar.

Inork ez zuen Anttoni buruz txintik ere esaten, umeak ez ziren beretaz gogoratzen eta nagusiek, berriz, nahiago zuten dena ahaztu. Baina benetan gertatu zena ez da orain arte kontatu dudana, ez da herriko tabernetan hegaz dabilen istorio hori.

ANTTONEN KONDAIRA

Gu, marinelok, beti izan gara oso pertsona sinesberak. Ezaguna egiten zaigun esaera zahar bat datorkit burura istorio hau zehatzago azaltzeko: “Ipar izarrik gabeko arrantzalea laster bihurtuko da itsas neska zalea...”

Itsas neskak oso izaki jeloskorrak direla esaten da, gizon batekin maitemintzen badira edozer egin dezakete harrapatu eta itsas barrenera eramateko, bertan betirako maitatu ahal izateko, alegia. Deskriba ezina den ahots erakargarri horrek arrantzaleak zeharo harrapatuta uzten ditu desioz eraikitako hodei batetan. Zoramina jaun eta jabe eginda erakar-





pen hori askoz errazagoa da eta itsas neskek, bere edertasunaz baliatuz, dei goxoa egiten dute egoera jasanezina bihurtzen den arte. Erdi emakume erdi arrain diren horien sentsualitatea hitzez deskriba ezina dela diote batzuek.

Orain dela urte mordo bat, portu ezkutatu honetan bizi zen Antton, arrantzale aparta eta oso langilea. Itsasoa maitatu izan zuen jaio zen egunetik, jakin arren kresal urez bustita bukatuko zituela bizitzako egunak. Baina bere pozik zoragarriena familia zen, emaztea eta hiru semeak. Gogor egiten zuen lan bere txalupan -*Hego-Haizen*- inork etxean beharrik izan ez zezan.

Kondairak dioenaren arabera, egun baten itsas neska batek Antton begiztatu zuen arrantzan zebilela. Inork ez daki noiz eta non, baina denek diote arrain-emakume hura beretaz maitemindu zela. Udako egun sargoritsu batean, haizeak etena eman eta txalupako gizonak arraunean nekatuta zeudela, emakume baten ahots ez-titsa eta erakargarria entzuten hasi ziren. Beroa zela eta oso nekatuta zeudenez, arraunak askatuz itsasora begira jarri ziren. Orduantxe agertu zen uretatik itsas neska zoragarri bat, marinel guztiak zeharo zoratu zituen. Hau ikustean, Anttonek ontzia urrundu nahi izan zuen ahots horrek harrapa ez zitzan baina entzuten ari ziren kantua beraien indarrak baino boteretsuagoa zen. Gizonak uretara salto egiteko prest zeudenean, patroiak arpoi bat hartu eta itsas neskari jaurti zion. Edertasun hura minaren minez bere baitan okertzen ikusi zuen momentuan, ordea, arpoia bere bihotzean iltzatuta geratu zitzaion betiko.

Bere maiteak egin ziona ikusita, itsas neskak sekulako amorru astinduak eman zituen bere isatsarekin, aurrera eta atzera, itsasoko urak haserre bizian jarri arte. Txalupa olatu tartean zizko egin zen eta gizon guztiak itota bertan geratu ziren, guztiak itsas neskaren maitea izan ezik. Antton egur zati baten gainean agertu zen burua zeharo galdata.

Handik aurrera gure arrantzalea ez zen berriz gizon bera izan, zahartu egin zen bat-batean, ez zuen hitzik egiten, lana bakarrik. Horretarako beste txalupa bat eraiki zuen, *Beti Hego-Haize*. Hainbat mutil gazte zeuden herrian berarekin itsasoratu nahi zutenak, horien artean bere seme

nagusia. Baina madarikazioak Anttonen atzetik jarraitzen zuen. Beste galarrena batek ontzia txiki-txiki egin zuen eta tripulazio guztia desagertu zen, inoren arrastorik ez, Antton bakarrik masta bati helduta bere semearen gorpua besoetan zuela. Zoramenean galduta, itsas neska bati buruz botatzen zituen hitz apur batzuk, itsas neska maite zuela zioen...

Handik aurrera beste zurrumurru batzuk entzuten hasi ziren herrian: Antton itsas neska batetaz maitemindu zenez, bere bila joateko bakarrik ateratzen zen itsasora. Hau aurkitutakoan, zoramenak jota inguruko gizonak hiltzen zituen altxorra berarentzat bakarrik izan zedin. Hain zen indartsua itsas neskarenganako desioa, non patroia bere semea hiltzeko gai izan zen.

Etxera bueltatzean, emazteak ez zion utzi atetik sartzen. “Beste biak ez dozuz erungo”. Hauek izan ziren bere familian entzun zituen azken hitzak. Portutik bueltaka ematen zituen orduak, bere etxabetik sarturitenak eginez, desagertu eta inoiz berriz ikusi ez zuten arte.

Herrian oraindik entzun daiteke arrantzale zahar baten ahotik egun sargaritsuetan, “errekaize”z lurrindurik dagoen galarrena usaina nabarmentzen den horietan, Antton bere maitearen bila atera dela itsasora.

HEGO-HAIZE

Hainbat urte geroago, Ameriketara bidaiak egiten zituen itsasontzi bateko kapitaina nintzela, Karibe inguruko irla txiki baten geratu nintzen laneko kontu batzuk zehaztera. Lurreratu nintzenean moila zahar bateko taberna begiztatu nuen, honek egurrezko kartel bat zuen ate gainean *Hego-haize* jartzen zuena.

Izena erakargarria iruditu zitzaidanez bertara joan eta jabeari galdera batzuk egin nizkion tabernako izenari buruz. Gizon hura euskal jatorria zuen indiano bat zen. Taberna bere aitarena izan zela kontatu zidan eta izena aitaren lagun marinel baten omenez jarri ziola, bertatik bizi izan zen gizon batena, antza zenez.




Edateko zerbait eskatu eta tabernako mahai baten eseri nintzen. Edalontzia uztean, laban punta batekin idatzita zeuden lerro batzuk nabaritu nituen mahai gaineko egurrean. Hitz horiek honela zioten:


“Itsasoa

Emakume ederren artean ederrena, desioz arimak erakartzeko gai dena, soinu finez zoramena dakarrena.

Gizonen beharrak inoiz asetzen ez dituen emakume maita-ezina, maitasun goxo eta krudela, maitasunik gabeko amodioa, amodio gida-ezina, pasioa, amorrua, zoramena.

Hego-Haize”





DURANGO

Udala •

Ayuntamiento